



ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA 2016

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA ENTREGATZEA

Data: 2016ko matxoaren 9a

Entregatzeko epea:

2016ko martxoaren 11tik 23ra bitartean, biak barne (azken egunetara arte ez itxarotea gomendatzen da).

Nortzuek entregatu behar dute:

Sarbide libreko txandarako eta desgaitasunagatiko erreserbarako izangaiek:

- hautaketa-prozeduran behin-behineko onartuta daudenek.
- hautaketa-prozeduran behin-behineko baztertuta daudenek, baldin eta erreklamazioa jarri badute eta ebatzi gabe badago.

Entregatzeko era:

Deialdiaren 7.3.1 oinarriak ezartzen duen arabera, programazio didaktikoak on line entregatuko dira, Internet bidez:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) -> “EPE 2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura” -> “Norberari egokitutako kontsultak eta PDren entrega”.

Ondorengo pausuak jarraitu behar dira:

- klik egin behar da «Eskabide zbk-PDren entrega» atalean agertzen den hautagaiaren eskaera-zenbakian. Espezialitate bat baino gehiagorako eskabidea bete bada, kasu bakoitzean dagokion espezialitateko eskaera-zenbakia aukeratu beharko da.

- entregatu beharko da, pantailaren argibideen arabera.

- ordezkagiria inprimatu behar da; ordezkagiri horretan hautagaia identifikatzeko NANA eta eskaera-zenbakia agertuko dira, eta dokumentua zein datan eta orduan entregatu den ere bai.

Espezialitate berberarentzako programazio didaktiko bat baino gehiago entregatuz gero, aurkeztutako azkena besterik ez da kontuan hartuko, erregistratutako data eta entregatzeko orduaren arabera.

OHARRA: programazio didaktikoa entregatu ondoren, entregatutako dokumentua **bistaratzea** gomendatzen da, entregatu nahi den dokumentua dela ziurtatzeko.

**Formatu elektronikoak:**

- Microsoft Office 2010 edo aurrekoa.
- Libre Office 4.1 edo aurrekoa.
- Fitxategiak Portable Document Format-en (PDFn).

Hautaketa-prozeduratik baztertuta geratzea:

Programazio didaktikoa epean entregatzen ez duten izangaiak deialdiaren 7.3.1 oinarrian ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozeduratik baztertuta geratuko dira.